


Komunika+ enpresa bezero talde zehatz batentzat dago zuzenduta, 0-6 etapan hezkuntza eskaintzen duten zentroa hain zuzen ere. Haurraren garapena eta zaintza haurreskolan eta eskolan (0-6 urteko etapan) bermatzeko eta hezitzaile-gurasoen arteko harremana eta komunikazioa hobetzeko aplikazio bat denez, gure bezeroak, eskolak eta familiak izango dira.

Irizpide geografikoa dela eta, hasiera batean Euskadi mailan zabalduko dugun aplikazioa izango da, bi hizkuntzatan, euskaraz eta gaztelaniaz. Familia edo tutore batzuek euskaraz ez dakitenez, gaztelaniaz ere egitea erabaki dugu. Gainera, hainbat eskola edo zentrok ez dituzte euskaraz klaseak ematen, haiek ere aukera izateko aplikazioa erabiltzeko. Aurrerago ordea, gure ideia Espainia, Europa eta azkenik munduan zehar aplikazioa zabaltzea izango litzateke, baina hori egin ahal izateko baliabide gehiago lortu behar ditugu lehenik.

EUSKADIKO HEZKUNTZA ZENTROAK

2022/2023 Euskadi - Zonaldeka sailkatuta



2022/2023 Euskadi - Zentro motaren arabera sailkatuta

